Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

ARRETAREN ETIKAKO BATZORDEA

DEBAGOIENEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

ZER DA ARRETAREN ETIKAKO BATZORDEA?

Aholkularitza-organoa da, disziplina-artekoa eta Debagoieneko ESIko profesional eta erabiltzaileen zerbitzura dagoena; arretaren jardunean sorrarazitako gatazka etikoak aztertu eta ebazten aholkatzeko dago sortua, eta osasun-arretaren kalitatea hobetzea dauka helburutzat, azken batean.

EZAUGARRIAK:

- **Aholku-emailea da**: azken erabakia kontsulta-egilearen esku dago
- **Independientea da**, edozein organo instituzionali dagokionez
- **Ez-konfesionala**

ZEINTZUK DIRA ZEREGINAK?

AHOLKUA, PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA ESKAINTZEA

- Erabaki klinikoen prozesua aztertu, aholkuak eman eta bideratzea, partaideen artean etikako gatazkak sortzen diren egoeretan: osasun-arloko profesionalak, erabiltzaileak eta erakundeak.
- Txostenak eta gomendioak osatzea kasu zehatzetan.
- Erakundeari protokolo eta jarduera-gidak proposatzea, behin eta berriro edo noizbehinka sortzen diren gatazka etikoei begira.
- ESIko profesionalen bioetikako prestakuntzan laguntzea, batzordekideei dagokienez, batez ere. Funtzionamendu-araudia osatu eta onartzea.
- Jardueren urteko txostena osatu eta Zentroko Gerentziari eta Osasun Sailari bidaltzea.

BATZORDEAREN ZEREGINAK EZ DIRENAK

Profesionalen etika edo erantzukizunari buruzko irizpenak eskaintzea, ezta pazienteen jokabideen gainekorik ere. Ez dauka zigorrik jartzeko ahalmenik.

Pertsonei edo erakundeari zuzenean lotutako jarduera juridikoak sustatu edo babestea.

Aholkularitza eskatu duenaren erantzukizuna eskuordetzea.

Erabaki lotesleak hartzea.

IKEB ordezkatzea.

Osasun-arretari zuzenean edo zeharka lotuta dauden gizarte edo ekonomia arloei buruzko azterlanak osatzea.

Osasun-jardueraren prozedura teknikoei eragiten dieten salaketa edo erreklamazioei buruz aholkatzea edo txostena osatzea.

Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

IRIZPIDEAK

AUTONOMIA

Askatasun eta borondatez erabakitzeko ahalmena

KALTERIK EZ

Jarraibide zuzenak Kalterik ez eragitea beharrizanik gabe

JUSTIZIA

Ekitatea

ONURA

Pazientearen interes hoberena

EGOERAK

- Tratamenduari edo tratamenduaren zati bati uko egitea
- ATE Ahalegin terapeutikoari egokitzea
- Sedazio aringarria
- Eutanasia eta suizidio lagundua
- Konfidentzialtasuna

Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

FUNTZIONAMENDUA

Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

ZERGATIK SORTU DA ETIKAKO BATZORDEA?

Debagoieneko ESIko AEB sortu aurretik, AUOko AEBra jotzen zen edozein gatazka etiko agertuz gero, Karmele Uribarriren bidez

Zenbait profesionalen interesa bertoko Etikako Batzordea sortzeko

Kudeaketako Plan Estrategikoan jasota

Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

ETIKAKO BATZORDEAREN SORMENA

2015eko otsailean, saio kliniko orokor bat egin zen, ESIko langile guztientzat irekia eta osasunaz kanpoko zenbait ordezkarirentzat ere bai (gizarte-langileak eta kanpoko pazienteak); haren bidez jakinarazi zen Azucena Couceiro Vidal doktorearen eskutik hasiko zela prestakuntza-jarduera (Med. Phd., Medikuntza eta Humanitate medikoen teoriako irakaslea).

2015eko ekainean ekin zitzazion talde sustatzailearen trebakuntzari, 2016ko martxora arte, Azucena Couceiro doktorearen eskutik, kasu itxien hileroko saio teoriko/praktikoen bidez.

2016ko urtarrilean egin zen talde sustatzailearen lehenengo bilera; bertan izendatu ziren batzordeburua, batzordeburu-ordea, idazkaria eta idazkari-ordea.

2016ko martxoaren eta 2017ko otsailaren artean, trebakuntzari ekin zion batzorde sustatzaileak, hileroko bileren bidez.

2017ko otsailaren 20an aitortu zuen Debagoieneko ESIko Etikako Batzordea Osasun sailburuordeak.

AEB: AITORPENA

AEB Sustatzeko Batzordea (urtebete)

- Osaketa
- Kasuen azterketan trebatzea (hausnarketa): kasu itxiak (atzera begirakoak) edo historikoak
- AEBren araudia osatzea

Aitorpen ofiziala

OSAKETA

Disziplina-artekoa

- Sinesmen eta ideologia ezberdinak, aurreikuspen kopuru handiagoa, profesional sanitario eta gizarte arloko ordezkaritzaren parte-hartze orekatua

Batzordekide kopuru nahikoa eta erraz bideratzeko modukoa

- Sinesmen eta ideologia ezberdinak, aurreikuspen kopuru handiagoa, profesional sanitario eta gizarte arloko ordezkaritzaren parte-hartze orekatua
- Nahikoa, kide-kopuru esanguratsua
- Bideratzeko modukoa behar bezala hausnartu ahal izateko
- Batzordekide kopuru egokia: 15-20 artean
  - 9 gutxienez, dekretuaren arabera: medikuak, erizainak, bioetizista, gizartearen ordezkaria
  - Egokia: beste profesional sanitario batzuk, erlijio arlokoak, legelaria

Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

BATZORDEKIDEAK

BATZORDEBURUA:
Susana Díaz de Durana

BATZORDEBURU-ORDEZKOA:
Karmele Uribarri

IDAZKARIA:
Luis Martín

IDAZKARI-ORDEZKOA:
Susana Álvarez

KIDEAK: Jesús Millas, Horacio Argárate, Ainhoa Moyua, Elena López, Miguel A. Guiu, Miguel A Cartagena, Izaskun Markinez, Djamila Zereiby, Susana Inda, Sofía Pérez, Teresa Conde, Ascen Susierra, Asun Garro, Isabel Mangana

Osakidetza

DEBAGOIENEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

ESKERRIK ASKO